

3. Erantzun orriko **A ZATIA** bete behar da.

A zatia / Parte A

4. Oposizio aldiko **LEHENENGO ARIKETAK- A atala-** (13:00etarako deitua) **40 galdera** ditu. **Azkeneko 10 erresebakoak** dira eta aurreko **30 etakoren bat baliogabetzen bada** bakarrik hartuko dira kontuan. Beraz, galdera guztiei erantzuten saiatu behar duzu. Ariketa giteko **60 minutu** dituzu.
5. Galdera bakoitzak lau erantzun ditu aukeran: A, B, C eta D. Galdera bakoitzeko, soilik erantzun zuzen bat dago. Galdera eta dagozkion lau erantzunak irakurri ondoren, erantzun-orrian jarri behar duzu zein den, zure iritziz, erantzun zuzena.
6. Adi-adi erantzunak ematerakoan, boligrafo-markak ezin dira-eta ezabatu. Dena den, aukeratutako erantzuna ezeztatu egin daiteke. Ikusi eredu hau.

Rellene la casilla correspondiente a su elección en la fila superior. En este caso hemos elegido la Opción C (observe el ejemplo).



Vea cómo se anula la elección anterior y se contesta una nueva. Se anula la Opción C y se elige la Opción A (observe el ejemplo).



Azterketak dirauen artean, nahi baduzu, **beste erantzun-orri bat eska dezakezu**, baina gogoan izan zure datu personalak, NANA barne dela, eta azterketa eredu (A edo B) bete behar dituzula, eta ez duzula denbora gehigarrik izango.

7. Ariketaren zuzeneko puntuazioa honako formularen bidez eskuratuko da: **zuzeneko puntuazioa (P) da erantzu zuzenen kopurua (A) ken erantzun okerren (E) laurden bat ($P = A - E/4$)**. Hau da, lau erantzun oker bakoitzeko zuzen baten balioa kentzen da. Galdera berari bi erantzun markatuz gero ez erantzuntzat hartuko da.
8. Ikusten duzunez, erantzun-orria bikoitza da: bata zuria da, eta bestea, berriz horia. **Ez bereizi orriak, harik eta azterketa bukatzen den arte**. Orriok azterketa egiten ari zaren bitartean bereizten badira, ipin ezazu orri zuria horiaren gainean, erantzunak kopia daitezten.
9. **Ezarritako gehienezko denbora bukatzeko 15 minututik gora falta** direla amaitzen dutenak aretotik irten ahal izango dira. Altxatu eskua, bereizi kopia horia erantzun-orritik, eman zaintzaile bati erantzun-orri txuria, galderen koaderno eta boligrafoa, eta hartu zuretzat kolore horiko orria eta jarraibide-orria. Ondoren irten zaitez aretotik. Ariketaren azkeneko 15 minutuetan ez zaio irteten utziko inori. Amaitzen dutenek bere tokian geratuko dira denbora agortuta, galderen koaderno guztiak eta kolore txuriko erantzun-orriak jaso ondoren, irteteko agindua ematen den arte. Aginduaren ostean hartu zuretzat kolore horiko orria eta jarraibide-orria.

Galderen koaderno eta erantzun zuzenen zerrenda Udaleko web orrian argitaratuko dira azterketa eguneko 15:00etatik aurrera